

15 eta 29 urte bitarteko hamar gaztetik ia seik euskaraz ondo ulertu eta hitz egiten dute

1996tik 2006ra biztanleria osoan euskaldunen kopuruak % 6,4 egin du gora; igoera are handiagoa izan da biztanle gazte euskaldunen artean, % 20 baino handiagoa, izan ere.

Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuaren datuen arabera, **Euskadiko biztanleen** % 40,5ek ez dute euskaraz ulertu ez hitz egiten (erdaldunak dira); % 37,4k euskaraz ongi ulertu, hitz egin, irakurri, eta idazten dute (euskaldunak dira); eta % 22,1ek euskaraz zailtasunez ulertu, hitz egin, irakurri eta idazten dute (ia euskaldunak dira).

Duela hamar urteko datuei bagagozkio, euskaldunen eta ia euskaldunen kopuruak gora egin du eta, erdaldunenak, aldiz, behera.

Biztanle gazteei dagokienez, 2006ko datuek aditzera ematen dute % 57,2 euskaldunak direla, % 26,1 ia euskaldunak eta % 17,0 erdaldunak. 1996ko datuekin alderatuta, gazte euskaldunen kopuruak gora egin du eta ia euskaldun eta erdaldunenak behera.

Euskadiko biztanleria osoa kontuan harturik, euskaldun eta ia euskaldunen proportzioa handiagoa da gazteen artean, eta erdaldunena apalagoa.

Biztanleria osoaren eta 15 eta 29 urte bitarteko gazteen euskararen ezagutza. (%) EAE. 1996-2006

	1996		2006	
	Biztanleria osoa	15-29	Biztanleria osoa	15-29
Euskaldunak	31,0	36,0	37,4	57,2
Ia euskaldunak	20,0	34,0	22,1	26,1
Erdaldunak	49,4	31,0	40,5	17,0

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua. Eustat

Datuak **adin-tarteei** erreparatuta aztertzen badira, antzeman daiteke gazteenen (15 eta 19 urte bitartekoen) adin-taldean gazte euskaldunen kopurua handiagoa dela (% 67,8) erdaldunena baino (% 11,0). Gazte nagusien artean (20 eta 24 urte bitartekoak eta 25 eta 29 urte bitartekoak), aldiz, gazte euskaldunen proportzioa txikiagoa da eta erdaldunena handiagoa. Adinean gora egin ahala euskaldun kopurua jaisten den arren, hiru adin-taldeetako gazteen erdiak baino gehiago euskaldunak dira.

Ama-hizkuntzari dagokionez, gazte euskaldunen % 60,8rena gaztelania izan da, % 27,2rena euskara; % 9,5ena bai euskara bai gaztelania; eta, azkenik, %2,5ena beste hizkuntza bat. Gazte ia euskaldunen % 88,5en ama-hizkuntza gaztelania izan da; % 5,3rena euskara; % 3,4rena beste hizkuntza bat; eta %2,8rena bai euskara bai gaztelania. Azkenik, erdaldunen % 88,0rentzat ama-hizkuntza gaztelania izan da; % 6,9rentzat

beste hizkuntza bat; % 3,5entzat euskara eta % 1,6rentzat bai euskara bai gaztelania.

15 eta 29 urte bitarteko gazteak euskararen ezagutzaren eta ama-hizkuntzaren arabera. (%) EAE. 2006

	Euskaldunak	Ia euskaldunak	Erdaldunak
Euskara	27,2	5,3	3,5
Gaztelania	60,8	88,5	88,0
Biak	9,5	2,8	1,6
Beste bat	2,5	3,4	6,9

Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua. Eustat

Erlazionatutako datuen kontsulta:

Euskadiko gazteen euskara-ezagutzari buruzko adierazle estatistikoak

Erlazionaturiko estekak:

Gazteen Euskal Behatokiaren adierazle estatistikoaren sistema